

KULTURA

Uxue Alberdi, Mitxelko Uranga, Fernando Mikelarena eta Mikel Casal, Euskadi Literatura sariak

2016 urteko Euskadi Literatura sarien lehen iehen irabazleak jakinarazi dituzte. Uxue Alberdik jasoko du haur eta gazte literaturari dagokiona, Mitxelko Urangak euskarazko saiakera saria, Fernando Mikelarenak gaztelaniazko saiakerarena eta Mikel Casalek ilustrazio saria.

NAIZ | 2016/10/13 10:04 Eguneratua: 11:47



Euskadi Literatura sariak eman dituzte ezagutzera. (ARGAZKI PRESS)

Lakuako Kultura sailak Euskadi Literatura sarien hainbat atalen irabazleak eman ditu ezagutzera. Mitxelko Uranga izan da irabazlea euskarazko saiakera arloan, ‘Tartaroa. Mina, boterea eta egia’ lanari esker. Era berean, gaztelaniazko saiakeran Fernando Mikelarenaren ‘Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936’ saritu dute.

Haur eta gazte literaturaren sailean, bestalde, Uxue Alberdik bereganatu du saria, ‘Besarkada’ liburuari esker, zeina Maite Gurrutxagarekin batera osatu zuen. Azkenik, ilustrazioaren arloan, Mikel Casalen ‘Así es la dictadura’ lana hautatu dute.

Urangaren kasuan, epaimahaiak «hainbat funtsezko gizarte-gogoeta» plazaratu dituela nabarmendu du, «egungo pentsamentu filosofikoan gako diren eztabaidetan sakontzeko aukera zabaltzen digutenak».

Mikelarenaren lanari, bere aldetik, memoria historikoaren errekupeziarako duen balioa aitortzen dio, «gonbita egiten baitu gizarte-sentiberatasun handiko gai bati buruz hausnartzera».

Alberdiren kasuan, aldiz, «pentsatzeko baino sentitzeko liburu baten aurrean» kokatzen gaituela azpimarratu du.

Casalen gaitasuna ere ez dute ahaztu. «Nola aprobetxatu duen prentsako autore bezala duen dibulgazio-gaitasuna, eta nola jakin duen baliabide espresiboak haurrentzako album-formatura egokitzen», nabarmendu dute.

Datorren astean jakinaraziko dituzte gainontzeko sariak, euskarazko eta gaztelaniazko eleberria eta itzulpengintzari dagozkionak. Azaroaren 17an egingo egingo da sari banaketa Donostiako San Telmo museoan. 18.000 euro jasoko dute irabazleek eta 4.000 euro gehiago poltsikoratuko dute lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.